# Xedapen Orokorrak

## HERRIZAINGO SAILA

### Zk-3850

AGINDUA, 2002ko ekainaren 27koa, Herrizaingo sailburuarena, B motako joko-makinen prozedurak telematikoki nola tramitatu arautzen duena.

Gaur egungo gizarte aurreratuenetan gero eta sarriago erabiltzen dira bitarteko informatikoak arlo guztietan. Lanaren arloan eta merkataritzan tresna informatikoen bidez izugarri azkartzen dira komunikazioak eta harremanak, batez ere arlo ekonomiko aktiboenetan.

Horrenbestez, administrazio modernoek euren organoek teknika elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea sustatu behar dute; bakoitzak kudeatzen duen arloari dagozkion teknikak, hain zuzen ere.

Ildo horretatik, jokoaren arloko merkatua oso dinamikoa da, eta ondorioz enpresariek ere modu dinamikoan jokatu behar dute. Hori dela eta, Administrazioari behin eta berriro eskatzen diote jar ditzala bideak berarekiko tramiteak azkar eta eraginkortasunarekin egiteko, etengabe aldatzen ari den merkatura behar bezala moldatu behar dute eta.

Horregatik, Euskal Administrazioak beti bezala herritarrei zerbitzuak ematen jarraitu nahi duenez eta Euskadiko jokoaren arloko politikaren printzipioen arabera tramitazio-organoek arloko dinamizitatearen araberako bitartekoak eduki behar dituztenez, agindu honen bidez jokoaren arloko eragileek gehien eskatzen dituzten prozeduretako batzuk (joko-makinen aldaketak, esaterako) telematikoki nola tramitatu arautzen hasi gara.

Jokoaren arloko prozedura telematikoak Eusko Jaurlaritzaren proiektu orokor baten barruan daudenez gero, arreta berezia jarri da bitartekoak eta prozedurak erabiltzeko ahala pertsona baimenduen ez beste inoren eskuetan jartzeko, datuak ez aldatzeko eta ez galtzeko bideak jartzeko, eta prozesu informatikoak baimenik ez dutenen manipulazioetatik begiratzeko.

Horregatik guztiagatik, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Agindu honen xedea B motako jolas-makinen prozedurak telematikoki nola tramitatu arautzea da,

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### N°-3850

ORDEN de 27 de junio de 2002, del Consejero de Interior, por la que se regula la tramitación telemática de procedimientos de máquinas de juego de tipo B.

La creciente generalización del uso de medios informáticos es una realidad en las sociedades modernas avanzadas. En el ámbito profesional y comercial, estas herramientas permiten agilizar extraordinariamente las comunicaciones y las relaciones, especialmete en los sectores económicos más activos.

En consecuencia, una administración moderna tiene que promover la utilización por los órganos administrativos de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas adecuadas a las áreas de gestión que le correspondan.

En este sentido, el sector del juego se caracteriza por actuar en un mercado de gran dinamicidad, que exige una respuesta empresarial igualmente dinámica. Ello conlleva la permanente demanda hacia la administración de una tramitación ágil y eficaz, de forma que el profesional pueda desenvolverse adecuadamente en ese mercado cambiante.

Por ello, en coherencia con la permanente voluntad de servicio de la administración vasca y con los principios incluidos en la política de juego en Euskadi, de dotar a los órganos de tramitación de medios acordes con las características de dinamicidad del sector, mediante esta Orden se inicia la regulación de la tramitación telemática en materia de juego para algunos de los procedimientos autorizatorios más demandados por los operadores del sector, como son los relativos a cambios de máquinas de juego.

Siendo parte de un proyecto global del Gobierno vasco, en estos procedimientos telemáticos de juego, se ha tenido especial cuidado en que los procesos se realicen con las debidas garantías de restricción de utilización y acceso a las personas autorizadas, de prevención de alteraciones o pérdidas de los datos, así como de protección de los procesos informáticos frente a manipulaciones no autorizadas.

Por lo expuesto,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– Es objeto de la presente Orden la regulación de la tramitación telemática de procedimientos de máqui-

Euskal Autonomia Erkidegoko joko-makina, makina lagungarri eta jokorako beste sistema eta instalazio batzuen Araudiko 52. artikuluan xedatutakoaren arabera (araudi hori abenduaren 24ko 308/1996 Dekretuak onetsi zuen).

2.– Hona telematikoki tramita daitezkeen prozedurak:

– B motako makinak aldatu edo trukatzea.
– B motako makinen establezimendua aldatzea.

– Enpresa bereko bi establezimenduren ustiapen-baimenak trukatzea.

*2. artikulua.–* Tramitazio telematikorako alta.

Agindu honetan ezarritako tramitazio telematikoaz baliatu ahal izateko, B motako makinekin diharduten enpresak Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako Jokoaren Erregistro Zentralean egon behar dira eta erabiltzaile-ziurtagiria eskuratu behar dute Aginduko I. eranskinean xedatutakoari lotuz.

*3. artikulua.–* Sinadura elektronikoa.

1.– Agindu honetan ezarritakoaren arabera telematikoki egiten diren tramiteetan sinadura elektroniko aurreratua erabili beharko da, hain zuzen ere Sinadura Elektronikoari buruzko irailaren 17ko 14/1999 Errege Lege-Dekretuan ezarritakoa.

2.– Sinadura elektroniko aurreratua erabili nahi dutenek X509 Erabiltzaile Ziurtagiria (3. bertsioa) izan behar dute; ziurtagiri hori agindu honetako I. eranskinean ezarritakoaren arabera emango da.

*4. artikulua.–* Segurtasuna tramitazio telematikoan.

1.– Administrazio organoek teknika eletroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzen dituztenean agindu honetan aipatutako egintzak edo jakinarazpenak emateko, beti ere organoak identifikatzea eta bere eskumenak baliaraztea bermatuko da.

2.– Berriemateak benetakotasunarekin, konfidentzialtasunarekin, integritatearekin eta trukatutako mezuak zapuztu gabe egingo dira.

3.– Euskarri, bitarteko eta aplikazio telematikoak erabiltzean honakook bermatu behar dira:

a) Bitartekoak eta prozedurak erabiltzeko ahala pertsona baimenduen ez beste inoren eskuetan jartzea.

b) Datuak ez aldatzeko eta ez galtzeko, eta berriemateak inork ez atzemateko, bideak jartzea.

c) Prozesu informatikoak baimenik ez dutenen manipulazioetatik begiratzea.

nas recreativas de tipo B, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 52 del Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por el Decreto 308/1996, de 24 de diciembre.

2.– Los procedimientos objeto de tramitación telemática son los siguientes:

– Cambio o canje de máquina de tipo «B»
– Cambio de establecimiento de máquinas de tipo «B».
– Intercambio de permisos de explotación, pertenecientes a la misma empresa operadora entre dos establecimientos, o permuta.

*Artículo 2.–* Alta en la tramitación telemática

Podrán realizar la tramitación telemática a que se refiere la presente Orden las empresas operadoras de máquinas de tipo B inscritas en el Registro Central de Juego de la Dirección de Juego y Espectáculos y que obtengan el certificado de usuario conforme lo dispuesto en el Anexo I de la presente Orden.

*Artículo 3.–* Firma electrónica.

1.– Los trámites que, de acuerdo con lo señalado en la presente Orden, se realicen por vía telemática utilizarán la firma electrónica avanzada a que se refiere el RD Ley 14/1999, de 17 de septiembre, sobre firma electrónica.

2.– Los interesados en la utilización de la firma electrónica avanzada deberán disponer, a estos efectos, del Certificado de Usuario X509 versión 3, expedido de acuerdo con lo establecido en el Anexo I a la presente Orden.

*Artículo 4.–* Seguridad en la tramitación telemática.

1.– La utilización por los órganos administrativos de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas para la emisión de actos o notificaciones a los que se refiere la presente Orden garantizará en todo caso la identificación y el ejercicio de la competencia por el órgano correspondiente.

2.– Las comunicaciones se realizarán con autenticidad, confidencialidad, integridad y no repudio de los mensajes intercambiados.

3.– La utilización de soportes, medios y aplicaciones telemáticas deberá garantizar:

a) la restricción de su utilización y del acceso a los datos e informaciones en ellos contenidos a las personas autorizadas.

b) La prevención de alteraciones o pérdidas de los datos e informaciones e interceptación de las comunicaciones.

c) La protección de los procesos informáticos frente a manipulaciones no autorizadas.

4.– Agindu honetan ezarritakoak ez du aldatu administrazio-jarduketei aplikatu beharreko araubide juridikoa, tramitazio telematikoari buruzko berariazko zehaztapenak gorabehera.

*5. artikulua.*– Jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez.

1.– Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak interesatuekiko komunikazioetarako bitarteko telematikoak erabiltzean, beti ere bermatu beharko du azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 58. eta 59. artikuluetan administrazio-egintzak jakinarazteari buruz ezarritako betekizunak betetzen direla.

2.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.3. artikuluan xedatutakoak ondorioak izan ditzan, datu-basean grabatuko dira jakinarazpena webgunean interesatuarentzat eskuragai jartzen den data eta ordua, bai eta, gertatuz gero, interesatuak haren edukia begiratzen duen data eta ordua ere.

*6. artikulua.*– Agirien tramitazio eta erregistro telematikoa.

1.– Erregistro Telematikoa sortu da eskaerak, idazkiak eta berriemateak jaso eta bidaltzeko, hain zuzen ere agindu honetan ezarritakoaren arabera telematikoki tramitatu ahal diren agiriak. Haien tramitazioan azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan ezarritako betekizunak bete behar dira.

2.– Aurrean aipatutako agiriok urte osoan eta egun osoan tramitatu ahal izango dira telematikoki, eta Erregistroak ere jardunaldi bera izango du.

3.– Erregistro Telematikoan egiten diren oharrak Erregistro Orokorrean integratuko dira informatikoki indarreko arautegian ezarritakoaren arabera.

*7. artikulua.*– Agiriak artxibatu eta zaintzea.

1.– Teknika telematikoen bidez sortutako agiriak eite bereko euskarrietan gordeko dira, jatorrizko formato berean zein informazioa zegoen-zegoenean berreskuratuko dela ziurtatzen duen beste zeinahi formatotan.

2.– Agiriak gordetzen diren bitarteko edo euskarriek segurtasun-neurriak izan behar dituzte haien integritatea, benetakotasuna, kalitatea, babesa eta artapena bermatzeko; hain zuzen ere, erabiltzaileen identifikazioa eta sarreren kontrola ziurtatu behar dira.

3.– Interesatuak euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoetan dauden agirietan sartzeko 30/1992 Legeko 35. eta 37. artikuluetan eta, behar denean, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa aplikatuko da.

4.– Lo establecido en la presente Orden no altera el régimen jurídico aplicable a las actuaciones administrativas, a salvo de las especificidades propias de la tramitación telemática.

*Artículo 5.*– Notificaciones por medios telemáticos.

1.– La utilización por la Dirección de Juego y Espectáculos de medios telemáticos como cauce de la comunicación con los interesados garantizará en todo caso el cumplimiento de los requisitos establecidos por los artículos 58 y 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre para la práctica de la notificación de los actos administrativos.

2.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 59.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre quedará grabada en la base de datos la fecha y hora en que la notificación se encuentra accesible para el interesado en la web así como, en su caso, la fecha y hora en que se produzca el acceso a su contenido por parte del interesado.

*Artículo 6.*– Tramitación y Registro Telemático de documentos.

1.– Se crea un Registro Telemático para la recepción y salida de solicitudes, escritos y comunicaciones que, en los términos regulados por la presente Orden, sean objeto de tramitación telemática, que garantizará en todo caso el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

2.– Podrá realizarse tramitación telemática todos los días del año durante las veinticuatro horas, y el Registro tendrá el mismo periodo de funcionamiento.

3.– Se garantizará la integración informática en el Registro General de las anotaciones efectuadas en el Registro Telemático, en los términos dispuestos en la normativa en vigor.

*Artículo 7.*– Archivo y custodia de documentos.

1.– Los documentos que hayan sido producidos mediante técnicas telemáticas se conservarán en soportes de esta naturaleza en el mismo formato a partir del que se originó el documento, o en otro cualquiera que asegure la identidad e integridad de la información necesaria para reproducirlos.

2.– Los medios o soportes en que se almacenen documentos deberán contar con medidas de seguridad que garanticen la integridad, autenticidad, calidad, protección y conservación de los documentos; en particular, asegurarán la identificación de las personas usuarias y el control de accesos.

3.– El acceso por los interesados a los documentos almacenados en soportes electrónicos, informáticos o telemáticos se regirá por lo dispuesto en los artículos 35 y 37 de la Ley 30/1992 y, en su caso, por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.

4.– Aipatu euskarrietan gordetako agiriak euren administrazio-espedienteko osagai izango dira, gainerako jarduketak bezala, euskarria nolakoa den gorabehera, fisikoa zein telematikoa.

*8. artikulua.*– Tramitazio telematikoaren faseak.

1.– Tramitazio telematikoaren prozeduran fase hauek daude:

a) www. ej-gv.net/dje webgunean sartu; horretarako txartela sartu behar da txartel-irakurgailuan eta sistemak erabiltzailea aplikazio telematikoan sartzea onartu behar du.

b) Hauetako bat hautatu:

– B motako makinak aldatu edo trukatzea.
– B motako makinen establezimendua aldatzea.

– Enpresa bereko bi establezimenduren ustiapen-baimenak trukatzea.

c) Eskatutako administrazio-prozedurari dagokion formularioa bete.

d) Formulario egokia betetakoan, eskatzaileari ados dagoela adierazteko eskatuko zaio, eta horretarako sinadura elektronikoa aktibatzen duen PINa adierazi beharko du.

e) Administrazio-tasa likidatu eta jakinarazi.

f) Tramitea baimentzen duen agiria sortu eta eman.

2.– Nolanahi ere, aplikazio telematikoaren bidez eskatzaileak tramite-eskaeraren frogagiria sor dezake; bertan bidaltzailearen eta hartzailearen identifikazioak, sarrera-erregistroko zenbakia, tramitearen izena, eta eskaera aurkeztu den data eta ordua agertuko dira.

*9. artikulua.*– B motako makinak aldatu edo trukatzea.

B motako makinak aldatu edo trukatzea lokal batean ustiapen-baimen bati loturik dagoen B motako makina bat kendu eta mota bereko bese bat jartzea da. Horretarako jarraian azalduko diren datuak adierazi beharko dira aplikazio telematikoaren formulario elektronikoetan:

a) Aldatuko den makinaren ustiapen-baimena.

b) Instalatuko den makinaren modeloa, erregistro zenbakia eta serie zenbakia.

c) Makina berria lehenbizikoz instalatuko bada, modeloa, erregistro zenbakia eta serie zenbakia eta fabrikazio ziurtagiria eman zen data.

d) Aurreko instalazio-baimena eman zenetik lokalaren titularra aldatu bada, beraren NAN edo IFK.

4.– Los documentos almacenados en los citados soportes formarán parte del expediente administrativo correspondiente junto con el resto de actuaciones que formen parte del mismo, independientemente del tipo de soporte, físico o telemático, que se haya utilizado.

*Artículo 8.*– Fases del trámite telemático.

1.– Los trámites del procedimiento telemático comprenden las siguientes fases:

a) Acceso a la dirección web www. ej-gv.net/dje, introducción de la tarjeta en el lector de tarjetas y aceptación de entrada en la Aplicación telemática.

b) Elección de alguna de las siguientes opciones:

– Cambio o canje de máquina de tipo «B»
– Cambio de establecimiento de máquinas de tipo «B».
– Intercambio de permisos de explotación, pertenecientes a la misma empresa operadora, entre dos establecimientos o permuta.

c) Cumplimentación de los formularios referidos al concreto procedimiento administrativo solicitado.

d) Una vez cumplimentado el formulario correspondiente, se pedirá, para completar la tramitación, la aceptación del solicitante para lo que deberá introducir el PIN que activa la firma electrónica.

e) Liquidación y notificación de la tasa administrativa.

f) Generación y expedición del documento por el que se autoriza el trámite.

2.– En todo caso, la Aplicación telemática permitirá al interesado la obtención del comprobante de la solicitud del trámite, en el que se hará constar la identificación del remitente y destinatario, número de registro de entrada, denominación del trámite, y fecha y hora de su presentación.

*Artículo 9.*– Cambio o canje de máquina de tipo «B»

El cambio o canje de máquina de tipo B consiste en la sustitución de una máquina de tipo B vinculada a un permiso de explotación e instalada en un local por otra máquina de tipo B. A tal objeto habrán de cumplimentarse los siguientes datos en los formularios electrónicos de la Aplicación telemática:

a) Número de permiso de explotación de la máquina objeto de cambio.

b) Modelo, número de registro y número de serie de la máquina a instalar.

c) Modelo, número de registro y número de serie de la máquina a instalar y fecha de expedición del Certificado de Fabricación, si la máquina es de primera instalación.

d) DNI o CIF. del titular del local, en el supuesto de que haya cambiado desde que se autorizó la anterior Autorización de Instalación

*10. artikulua.–* B motako makinen establezimendua aldatzea.

B motako makinen establezimendua aldatzea makinaren ustiapen-baimena eta makina bera beste lokal batera aldatzea da. Horretarako jarraian azalduko diren datuak adierazi beharko dira aplikazio telematikoaren formulario elektronikoetan:

a) Lokal berrira eramango den makinaren ustiapen-baimenaren zenbakia.

b) Makina instalatuko den lokala aplikazio telematikoan ez badago, beraren izena eta helbidea, eta titularraren NAN edo IFK.

c) Instalazio-baimena eman zenetik makina instalatuta egon den lokalaren titularra aldatu bada, beraren NAN edo IFK.

*11. artikulua.–* Enpresa bereko bi establezimenduren ustiapen-baimenak trukatzea.

Enpresa bereko bi establezimenduren ustiapen-baimenak trukatzea bi lokalek euren ustiapen-baimenak eta haiei lotutako B motako makinak aldi berean trukatzea da. Horretarako jarraian azalduko diren datuak adierazi beharko dira aplikazio telematikoaren formulario elektronikoetan:

a) Trukatuko diren ustiapen-baimenen zenbakiak.

b) Trukeak ukituriko lokalen izenak.

c) Aurreko instalazio-baimena eman zenetik lokalaren titularra aldatu bada, beraren NAN edo IFK.

*12. artikulua.–* Baimena ematea.

1.– Behin eskatzailearen datuak ontzat eman ondoren, aplikazio telematikoak tramitearen eskabide-agiria erakutsiko du.

2.– Gero, tasaren likidazio-agiria erakutsiko du.

3.– Jarraian, baimen-agiria sortuko da, Administrazioak elektronikoki sinatua (eredua Aginduaren II. eranskinean dago) eta horrela espedientea amaituko da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko joko-makina, makina lagungarri eta jokorako beste sistema eta instalazio batzuen Araudiko 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (Araudia abenduaren 24ko 308/1996 Dekretuak onetsi zuen).

4.– Interesatuak baimen-agiria inprimatu behar du, eta haren edukia irakurtzeko moduan izan behar da, makina behar bezala dokumentatutzat joko bada.

*Artículo 10.–* Cambio de establecimiento de máquinas de tipo «B».

El cambio de establecimiento de máquinas de tipo B consiste en el traslado del permiso de explotación y la máquina de tipo B vinculada al mismo a otro local. A tal objeto habrán de cumplimentarse los siguientes datos en los formularios electrónicos Aplicación telemática:

a) Número de permiso de explotación de la máquina que se cambia de local.

b) Denominación del local y dirección del local en el que se instalará la máquina si el local no está incluido en la Aplicación telemática, así como D.N.I o C.I.F. de su titular.

c) DNI o CIF del titular del local en el que se encontraba instalada la máquina, en el supuesto de que haya cambiado desde que se autorizó la anterior Autorización de Instalación.

*Artículo 11.–* Intercambio de permisos de explotación, pertenecientes a la misma empresa operadora, entre dos establecimientos o permuta.

El Intercambio de permisos de explotación entre locales pertenecientes a la misma empresa operadora consiste en el cambio simultaneo entre locales de permisos de explotación y máquinas de tipo B vinculadas a los mismos. A tal objeto habrán de cumplimentarse los siguientes datos en los formularios electrónicos de la Aplicación telemática:

a) Números de los permisos de explotación que se permutan.

b) Denominación de los locales afectados por la permuta.

c) DNI o CIF del titular del local, en el supuesto de que haya cambiado desde que se autorizó la anterior Autorización de Instalación.

*Artículo 12.–* Emisión de la autorización

1.– La Aplicación telemática, una vez validados los datos introducidos por el solicitante, mostrará el documento de solicitud del trámite que corresponda.

2.– Con posterioridad exhibirá el documento de liquidación de la tasa correspondiente.

3.– A continuación se generará el documento de autorización firmado electrónicamente por la Administración, según modelo que figura como Anexo II a la presente Orden, lo cual supone la finalización del expediente de conformidad con el artículo 52 del Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por el Decreto 308/1996, de 24 de diciembre.

4.– El interesado deberá imprimir el documento de autorización, cuyo contenido deberá ser claramente legible a fin de que la máquina pueda considerarse documentada correctamente.

5.– Baimen-agiria instalazio-baimenean berariaz ezarritako tokian jarri behar da, interesatuak behar bezala bete eta sinatuta.

6.– Bi agiriok eta ustiapen-baimena edukiz gero, makina ustiatu ahal izango da.

*13. artikulua.–* Ustiapen-baimena.

Ustiapen-baimenean honako hauek agertu behar dira gutxienez:

a) Ustiapen-baimenaren zenbakia.

b) Ustiapen-baimena eman zen data.

*14. artikulua.–* Tramitazio ez-telematikoa.

Tramite bat telematikoki bideratu eta ondoren xede bereko tramitea egiten bada paperean, eskaerarekin batera tramite telematikoari dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira, hain zuzen ere Herrizaingo sailburuaren 1997ko abenduaren 17ko Aginduaren arabera dagozkionak; agindu horren bidez Euskadiko Autonomia Erkidegoko joko-makina, makina lagungarri eta jokorako beste sistema eta instalazio batzuen Araudia garatu zen joko-makina eta makina lagungarriak baimentzeko prozedurei dagokienez.

*15. artikulua.–* Administrazio-tasa likidatu eta ordaintzea.

1.– Administrazio-tasaren likidazioa Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legeko 19. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

2.– Aipatu lege horren itzalpean, administrazio-tasaren ordainketa interesatuak dioen kontuan helbideratuko da.

3.– Halaber, tramiteak euskarri telematikorik erabiltzen ez denean ere administrazio-tasaren ordainketa bankuan helbideratzeko eskatu ahal izango da.

*16. artikulua.–* Kontsultak.

Aplikazio telematikoak aukera ematen die interesatuei egindako tramiteak kontsultatzeko eta zein egunetan eta zein ordutan egin diren begiratzeko.

*17. artikulua.–* Datuen babesa.

Administrazioak agindu honen eremuan teknika elektroniko, informatiko eta telematikoak erabili ahal izango ditu, esan bezala, baina beti ere antolamendu juridikoan ezarritako mugak kontuan izanez. Batez ere bermatu behar du bete-betean aplikatzen dela Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa.

Halako teknikak erabiltzeak inolaz ere ezin du ekarri berekin herritarrek zerbitzu publikoak edo adminis-

5.– Dicha autorización deberá colocarse en el lugar reservado al efecto en la autorización de instalación, debidamente cumplimentada y suscrita por los interesados.

6.– La conjunción de ambos documentos, junto con el permiso de explotación, permitirá la explotación de la máquina.

*Artículo 13.–* Permiso de explotación

El contenido mínimo del permiso de permiso de explotación será el siguiente:

a) Número de permiso de explotación.

b) Fecha de expedición del permiso de explotación.

*Artículo 14.–* Trámite no telemático

Cuando se realice un trámite en soporte papel, al cual le hubiera precedido otro realizado por vía telemática de la misma naturaleza y sobre el mismo objeto, junto con la solicitud, habrá de presentarse la documentación que corresponda en función del trámite regulado en la Orden de 17 de diciembre de 1997, del Consejero de Interior, por la que se desarrolla el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de procedimientos de autorización relativos a máquinas de juego y máquinas auxiliares.

*Artículo 15.–* Liquidación y pago de la tasa administrativa

1.– La liquidación de la tasa administrativa contendrá los requisitos establecidos en el artículo 19 de la Ley 13/1998, de 29 de mayo de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El pago de la tasa administrativa al amparo de lo previsto en citada Ley se realizará mediante domiciliación bancaria en la cuenta que señale el interesado.

3.– El pago de la tasa administrativa mediante domiciliación bancaria podrá solicitarse, igualmente, para aquellos trámites que no utilicen soportes telemáticos.

*Artículo 16.–* Consultas.

La Aplicación telemática permitirá a los interesados la consulta de trámites realizados y la fecha y la hora en las que han sido registradas.

*Artículo 17.–* Protección de datos.

La utilización de las técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas por la Administración, en el ámbito de esta Orden, tendrá las limitaciones establecidas por el ordenamiento jurídico, y en especial garantizará la plena virtualidad de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

La utilización de tales técnicas en ningún caso podrá implicar la existencia de restricciones o discrimi-

trazio-jarduketak edo -prozedurak burutzeko murrizpenak izatea edo hartarako bereizkeria jasatea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa:*

Instalazio-baimenaren eredua onetsi da (III. eranskinean dago), agindu honen xede den tramitazio telematikorako zein Herrizaingo sailburuaren 1997ko abenduaren 17ko Aginduan arautuktako tramitaziorako erabil daitekeena; 1997ko abenduaren 17ko Aginduaren bidez Euskadiko Autonomia Erkidegoko joko-makina, makina lagungarri eta jokorako beste sistema eta instalazio batzuen Araudia garatu zen joko-makina eta makina lagungarriak baimentzeko prozedurei dagokienez.

*Bigarrena:*

Joko-makinei buruzko tramiteak agindu honetan ezarritako bitarteko telematikoak ez beste batzuen bidez egiten direnean, aurreko xedapenean aipatutako 1997ko abenduaren 17ko Agindua aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Bakarra:*

1.– Lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa gorabehera, telematikoki bideratzen ez diren tramiteetan 2002ko abenduaren 31 arte Herrizaingo sailburuaren 2000ko martxoaren 3ko Aginduan arautuktako instalazio-baimenaren eredua erabili ahal izango da; agindu horren bidez 1997ko abenduaren 17ko Agindua aldatu zen, hots, Euskadiko Autonomia Erkidegoko joko-makina, makina lagungarri eta jokorako beste sistema eta instalazio batzuen Araudia joko-makina eta makina lagungarriak baimentzeko prozedurei dagokienez garatu zuena.

2.– Aurreko zenbakian aipatutako instalazio-baimenak euren indarraldian izango dira baliozko, edo, 2002ko abenduaren 31z geroztik, harik eta beste batek ordeztu bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu honetan xedatutakoaren aurkako lerrun bereko edo beheragoko lerruneko arau guztiak indargabetu dira.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko ekainaren 27a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

naciones de cualquier naturaleza en el acceso de los ciudadanos a la prestación de servicios públicos o a cualquier actuación o procedimiento administrativo.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera:*

Se aprueba el modelo de Autorización de Instalación que figura como Anexo III a la presente Orden, tanto para la tramitación telemática a que se refiere la presente Orden, como para la regulada por la Orden de 17 de diciembre de 1997, del Consejero de Interior, por la que se desarrolla el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de procedimientos de autorización relativos a máquinas de juego y máquinas auxiliares.

*Segunda:*

Para los trámites de máquinas de juego que no se realicen por el procedimiento telemático establecido en la presente Orden, será de aplicación la Orden de 17 de diciembre de 1997, a que se refiere la Disposición anterior.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Unica:*

1.– Sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera, hasta el 31 de diciembre de 2002, para los trámites que no se realicen por vía telemática, podrá utilizarse el modelo de autorización de instalación regulado en la Orden de 3 de marzo de 2000, del Consejero de Interior, por la que se modifica la Orden de 17 de diciembre de 1997, por la que se desarrolla el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de procedimientos de autorización relativos a máquinas de juego y máquinas auxiliares.

2.– Las autorizaciones de instalación a que se refiere el número anterior serán válidas durante su periodo de vigencia o hasta que sean sustituidas por una nueva autorización de instalación a partir del 31 de diciembre de 2002.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas normas de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de junio de 2002.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.

I. ERANSKINA

A.– KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK.

Aurkezpen telematikoa: Komunikazio eta datuak hornitzeko sistema da, informatika eta telekomunikazioak batera erabiltzetik sortzen diren teknika eta baliabideen bidez.

PIN: Identifikazio pertsonalerako zenbakia da, beharrezkoa dena enpresen ordekaritzaren erabiltzailearen egiaztagiria aktibatu eta erabiltzeko, hain zuzen, X 509 3 bertsioa, egiaztatze erakundeak egiaztagiria eskatzen dutenei emango diena, hura eman aurretik.

Nabigatzailea: TCP/IP zein interneten oinarritutako datu sareen bidez web zerbitzariak, bai eta zerbitzari horiek duten informazioaren aurkezpena ere, eskuratzea ahalbideratzen duen programa informatikoa da.

Ondorio hauetarako, honako hau izango dira hauek:

– TCP/IP (Transmision Control Protocol/Internet Protocol): Interneten interkonexio eta trafikoa ahalbideratzen dituen protokolo taldea da.

– Web zerbitzaria: Interneten informazioa eskuratzen duen sistema informatikoa da.

Zifratu-gakoak: Zenbait prozedura matematikoen bidez informazioa eraldatu edo zifratzeko erabiltzen diren zenbaki edo zenbaki kateak dira.

Egiaztagirietan bi gako erabiltzen dira: gako publikoa eta gako pribatua; horrela, gako pribatuarekin zifratzen dena bakarrik deszifratu daiteke gako publikoarekin eta alderantziz.

Erabiltzailearen egiaztagiria: Egiaztatze agintaritzak ematen duen egiaztagiri elektronikoa da, eta bere formatua ITU-T-ko (International-Telecommunications Union-Telecommunication) X-509 gomendioaren 3. bertsioan oinarritzen da.

Egiaztatze agintaritza: Erabiltzaile edo zerbitzari zehatz baten datu identifikatzaileak egiaztatzen dituen erakundea da eta bere egiaztagiria ematen duena.

Sinadura elektronikoa: Datu multzo bat da, era elektronikoan antolatua, beste datu elektroniko batzuei atxikita edo funtzionalki horiei asoziatuta, eta sinadura jasotzen duen agiriaren egilea edo egileak formalki identifikatzeko balio duena.

Sinadura elektroniko aurreratua: Izenpetzailearen identifikazioa ahalbideratzen duen sinadura elektronikoa eta izenpetzaileak berariaz bere kontrolpeko bideez sortua izan dena; ondorioz, sinadura elektronikoa bakar-bakarrik egongo da lotuta harekin eta hari dagozkion datuekin. Horrela, horietan aldaketarik eginez gero, erraz antzeman daiteke.

B.– Aplikazio eta ekipoen ezaugarriak.

Erabiltzailearen ordenadore pertsonalean erabili behar den softwarea hauxe da:

– Sistema operatzailea Windows 95 edo berriagoa.

ANEXO I

A.– CONCEPTOS Y DEFINICIONES

Aplicación telemática: Sistema de comunicación y suministro de datos a través de técnicas y medios que resultan del uso conjunto de la informática y las telecomunicaciones.

Pin: Número de identificación personal, necesario para la activación y uso del certificado de usuario X 509 versión.3 de representación de empresas, que la entidad de certificación facilitará a los solicitantes de certificado con carácter previo a la entrega de éste

Navegador: Programa informático que permite el acceso a servidores web a través de redes de datos basadas en TCP/IP, como Internet así como la presentación de la información que dichos servidores contienen.

A estos efectos se entenderá por:

– TCP/IP (Transmisión Control Protocol/Internet Protocol): conjunto de protocolos que hacen posible la interconexión y tráfico de red en Internet.

– Servidor web: Sistema informático capaz de suministrar información en Internet.

Claves de cifrado: Números o cadenas de números que se emplean para transformar o cifrar una información con diversos procedimientos matemáticos.

En los certificados se utilizan dos claves: clave pública y clave privada, cumpliéndose que lo que se cifra con la clave privada sólo se puede descifrar con la clave pública y viceversa.

Certificado de usuario: Certificado electrónico emitido por la Autoridad de Certificación cuyo formato se basa en la versión 3 de la recomendación X-509 del ITU-T (International-Telecommunications Union-Telecommunication)

Autoridad de certificación: entidad que acredita los datos identificativos de un determinado usuario o servidor y que emite su certificado.

Firma electrónica: es el conjunto de datos, en forma electrónica, anejos a otros datos electrónicos o asociados funcionalmente con ellos, utilizados como medio para identificar formalmente al autor o autores del documento que la recoge.

Firma electrónica Avanzada: firma electrónica que permite la identificación del signatario y ha sido creada por medios que el signatario mantiene bajo su exclusivo control, de manera que la firma electrónica está vinculada únicamente al mismo y a los datos a los que se refiere, lo que permite que sea detectable cualquier modificación ulterior de éstos.

B.– Características de las aplicaciones y equipos

El software que se debe utilizar en el ordenador personal del usuario es:

– Sistema Operativo Windows 95 o superior.

– Nabigatzailea Internet Explorer 5.01 (edo berriagoa)

Aplikazioa Solaris 2.6 sistema operatzailea duten zerbitzariekin exekutatzen da eta Weblogic 5, eta Oracle 8 datu baseak erabiltzen ditu.

C.– Erabiltzaileen egiaztagiria lortzeko prozedura.

1.– Euskaltelek ematen duen egiaztagiria lortzeko baldintza orokorrak:

a) Erabiltzailearen egiaztagiria eskatu ahal izango dute enpresen behar bezalako ahalmena duten ordezkariek prozedura honetan tele-tramitatzeko.

b) Euskaltelek egiaztagiriak eman eta izenpetu egin beharko ditu.

c) EJIE (Sociedad Informatica del Gobierno Vasco SA – Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea) erabiltzaileen egiaztagiriak eskatzeko kudeaketaz arduratuko da.

d) Erabiltzailearen egiaztagiriak bi urteko indarraldia izango du ematen denetik.

2.– Erabiltzailearen egiaztagiria lortzeko prozedura.

a) Egiaztagiria eskatzea.

Eskatzaileak egiaztagiria lortzeko Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako lurralde ordezkaritzetan eskuragarri dagoen eskabidea bete beharko du.

Halaber, web: www.euskaltel.es/pki helbidean ere jaso ahalko dute eskabidea.

Eskabidea behar bezala beteta eta ondoren aipatzen diren agiriak Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako edozein bulegotan aurkeztu beharko dira:

– Erabiltzailearen egiaztagiria sinatuko duen NAN, pasaporte edo egoitza txartelaren fotokopia konpultsatua.

– Erabiltzailearen egiaztagiria eskatzea baimentzen duen enpresarioa edota ahalmena duen pertsonaren NAN, pasaporte edo egoitza txartelaren fotokopia konpultsatua.

– Erakundea ordezkatzeko ahalordea administrazioaren aurrean jarduteko, behar bezala izena emanda merkataritza erregistroan, hala behar izanez gero.

Azken kasuan jatorrizkoak edo indarreko legediaren arabera benetakotzat hartutako kopiak izan beharko dira.

Eskaria, behar bezala beteta, eskatzaileak izenpetu beharko du.

– Navegador Internet Explorer 5.01 (o versión superior)

La aplicación se ejecuta sobre servidores con el sistema operativo Solaris 2.6, y utiliza Weblogic 5 y bases de datos Oracle 8.

C.– Procedimiento para la obtención del certificado de usuario.

1.– Condiciones generales para la obtención del certificado de usuario emitido por Euskaltel, S.A.

a) Podrán solicitar el certificado de usuario las personas facultadas por sus empresas para teletramitar en el ámbito del presente procedimiento.

b) Euskaltel, S.A. será la Autoridad de Certificación encargada de emitir y firmar los certificados de usuarios.

c) EJIE, S.A.(Sociedad Informática del Gobierno Vasco SA-Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea) será la encargada de gestionar las solicitudes de certificado de usuario.

d) El certificado de usuario tendrá una vigencia de dos años desde su emisión.

2.– Procedimiento para la obtención del certificado de usuario

a) Solicitud.

Para la obtención del certificado de usuario el solicitante deberá rellenar el formulario de solicitud que estará a su disposición en las Oficinas Territoriales de Juegos y Espectáculos que a tal efecto dispone el Departamento de Interior del Gobierno Vasco en cada uno de los territorios históricos

También podrá obtener el formulario en la dirección web: www.euskaltel.es/pki.

El formulario debidamente cumplimentado junto con la documentación que se señala a continuación deberá ser presentada en cualquiera de las dependencias de la Dirección de Juego y Espectáculos:

Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o tarjeta de residencia del futuro signatario del certificado de usuario.

– Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o tarjeta de residencia de la persona con poder o empresario individual, que autoriza la solicitud del certificado de usuario.

– Poder bastante o documento que, en su caso, acredite la capacidad para contratar en nombre de la Entidad a la que pertenece el solicitante de la persona que autoriza la solicitud, debidamente inscrito, en su caso, en el Registro Mercantil.

En este último supuesto, deberá ser original o copia del mismo, que tenga el carácter de auténticas conforme a la legislación vigente.

La solicitud, debidamente cumplimentada, estará firmada por el solicitante.

b) Eskariko akatsak zuzentzeko modua.

Egiaztagiriaren eskarian honelako zerbait gertatuz gero:

1.– Eskaria ez badago behar bezala beteta.

2.– Eskatutako agiri guztiak ez badira aurkeztu.

3.– Aurkeztutako agirietan akatsak badaude.

4.– Beste akats edo hutsik badago.

Horren berri emango zaio interesdunari posta ziurtatuaz eta 15 egun balioduneko epea emango zaio jakinarazten zaionetik akatsok zuzentzeko eskaria aurkeztu zuen bulegoan bertan.

Aipatutako epe hori igarotakoan, ez badira akatsak zuzendu, behin betiko egingo zaio uko egiaztagiri eskariari. Beste egiaztagiri bat lortzeko beste eskabide bat aurkeztu beharko da betiere.

c) PINaren jakinarazpena.

Egiaztagiria eman aurretik postaz jakinaraziko zaio eskabidean ipinitako helbidean egiaztagiria aktibatzeko PINa, beharrezkoa dena egiaztagiria erabili ahal izateko.

d) Erabiltzailearen egiaztagiria ematea.

Ejiek eskatzaileari posta elektronikoz jakinaraziko dio eskarian ipinitako posta elektronikoko helbidean erabiltzailearen egiaztagiria eskuragarri duela, non jaso eta egiaztagiria jaso ahal izateko ziurtatu beharreko betekizunak.

Lehenengo jakinarazpena egiten zaionetik hiru hilabete pasatzen badira egiaztagiria jaso gabe, egiaztagiria baliogabetu egingo da eta egiaztagiria jasotzen duen euskarria suntsitu egingo da.

Egiaztagiria jasotzeko, ondoan aipatzen diren bulegoetako batera jo eta identifikazio agiriren bat aurkeztu behar du (NAN, pasaportea edo egoitza txartela) eskatzaileak:

– Bizkaia: Gran Via 85, 48011 Bilbao.
– Gipuzkoa: Andia 13, 20004 Donostia-San Sebastián.
– Araba: Donostia z/g, 01010 Vitoria–Gasteiz.

Egiaztagiria eskatzaileak berak jaso beharko du; hortaz, ezin izango du hirugarren batean utzi edo baimena eman hura jasotzeko, egiaztagiriak izaera pertsonalekoak baitira.

Egiaztagiria ematean, eskatzaileak jaso izanaren egiaztagiria izenpetu beharko du.

Eskatzaileak jaso izanaren egiaztagiria izenpetzeak zera dakar: eskatzaileak egiaztagiria onartu duela, bai eta hura erabiltzeko baldintzak ere.

b) Subsanación de defectos en la solicitud

Cuando en la solicitud de certificado de usuario se produjeran alguna de las circunstancias siguientes:

1.– Que la solicitud no esté debidamente cumplimentada.

2.– Que no se haya presentado la totalidad de la documentación exigida.

3.– Que existan errores en la documentación aportada.

4.– Otros defectos o errores.

Se notificará al solicitante por correo certificado la existencia de los mismos, concediéndosele un plazo de 15 días hábiles, desde que se le haya notificado, para subsanar dichos defectos ante las mismas oficinas en las que presentó la solicitud.

Si transcurrido el plazo no se hubieran subsanado los defectos, la solicitud de emisión de certificado de usuario será denegada definitivamente. En cualquier caso, para obtener un certificado nuevo se deberá presentar una nueva solicitud.

c) Comunicación del Pin.

Con carácter previo a la entrega del certificado de usuario le será comunicado por correo ordinario, a la dirección consignada en la solicitud, el PIN de activación necesario para utilizar dicho certificado.

d) Entrega del certificado de usuario

Ejie notificará al solicitante por correo electrónico a la dirección de correo electrónico consignada en la solicitud, la disponibilidad del certificado de usuario, lugar de recogida del mismo y los requisitos de acreditación para poder retirarlo.

Transcurridos 3 meses desde la primera notificación sin que el certificado de usuario sea recogido, será revocado y el soporte en que se recoge destruido.

Para recoger el certificado de usuario el solicitante deberá presentarse ante las oficinas que se señalan a continuación y mostrar la documentación identificativa (DNI, pasaporte o tarjeta de residencia).

– Bizkaia: Gran Via 85, 48011 Bilbao.
– Gipuzkoa: Andia 13, 20004 Donostia-San Sebastián.
– Alava: Avda. Donostia s/n, 01010 Vitoria–Gasteiz.

La recogida ha de ser efectuada por el solicitante de forma personal, no pudiendo delegar o autorizar la recogida del mismo por un tercero, debido al carácter personal que poseen los certificados de usuario.

Con su entrega el solicitante deberá firmar un acuse de recibo.

La firma por el solicitante del acuse de recibo supone la aceptación del certificado de usuario y de las condiciones de utilización del mismo por parte del solicitante.

Egiaztagiria ematen den momentuan, hura erabiltzeko baldintzen berri emango zaio erabiltzaileari, www.euskaltel.es/pki helbidean ere jasota daudenak.

En el momento de la entrega se le informará de las condiciones de utilización del certificado, que en todo caso, se encuentran publicadas en la dirección de internet: www.euskaltel.es/pki

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BAIM. ZK.: B-XXXX

||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||
MAKINA: XXXXXXXXXXXXXXX-MBXXXX-XXXXXXXX
ARETO: XXX-XXXXXXXXXXXXXXX UD.–L.H.: XX-XX
E.O.: OB-XXX TITUL. NAN-IFK: XXXXXXXXXX
JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

||||||||||||||||||||||código de barras||||||||||||||||||||||||||||||
||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||
G.E.: X URTE BAIM. DATA: XX-XX-XXXX
DIRECCIÓN DE JUEGO Y ESPECTÁCULOS

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BAIM. ZK.: B-XXXX

||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||
MAKINA: XXXXXXXXXXXXXXX-MBXXXX-XXXXXXXX
ARETO: XXX-XXXXXXXXXXXXXXX UD.–L.H.: XX-XX
E.O.: OB-XXX TITUL. NAN-IFK: XXXXXXXXXX
JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

||||||||||||||||||||||código de barras||||||||||||||||||||||||||||||
||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||||
G.E.: X URTE BAIM. DATA: XX-XX-XXXX
DIRECCIÓN DE JUEGO Y ESPECTÁCULOS

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
*Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
*Dirección de juego y Espectáculos*

# Joko-makina instalatzeko baimena
# Autorización de instalación de máquinas de juego

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **E. O. Izena** / Nombre de E. O. | | **NAN-IFK** / CIF-DNI | | **E. O. Zk.** / Nº E. O. |
| **Makina mota** / Tipo máquina | **Baimena Zk.** / Nº permiso | **Modeloa** / Modelo | **Erregistro Zk.** / Nº registro | **Serie Zk.** / Nº serie |
| **Aretoaren izena eta helbidea** / Nombre y domicilio del local | | **Udalerria-L. H.** / Municipio-T. H. | | **Taldea** / Grupo |
| **Aretoaren titularra** / Titular del local | | **NAN-IFK** / DNI-CIF | | **Telefonoa** / Teléfono |

**Sinadura: E. O.-ren legezko ordezkaria**
Fdo.: Representante legal de E. O.

**NAN-IFK** / DNI-CIF:

**Sinadura: Aretoaren titularra**
Fdo.: Titular del local

**NAN-IFK** / DNI-CIF:

**Data eta zigilua**
Fecha y sello

GEHIENEZKO EPEA: / VALIDO POR: 3 4 5 6 URTE / AÑOS

**Administrazioak betetzeko**
A cumplimentar por la administración

INSTALATZEKO BAIMENA HIRU URTEREN ETA SEI URTEREN ARTEKO EPERAKO SINATUKO DA, ADMINISTRAZIOAK ZIGILUA JARTZEN DIOENETIK KONTATZEN HASITA, ETA EPE HORI SINATUTAKO EPERAZ LUZATU AHAL IZANGO DA, BAIMENAK INDARRA GALDU BAINO BI HILABETE LEHENAGO ALDE BATEK EDO BESTEAK HAREN BALIOA SALATZEN EZ BADU.
LA AUTORIZACIÓN DE INSTALACIÓN PODRÁ FORMALIZARSE POR UN MÍNIMO DE TRES AÑOS Y UN MÁXIMO DE SEIS AÑOS DESDE LA FECHA DE SU SELLADO POR LA ADMINISTRACIÓN, ENTENDIÉNDOSE PRORROGADO POR EL PERIODO ARRIBA INDICADO, SI NO SE PRODUJERA DENUNCIA DE SU VALIDEZ POR CUALQUIERA DE LAS PARTES DOS MESES ANTES DE LA FECHA DE SU VENCIMIENTO.

Enpresa Operatzailerako alea

**Zk. / Nº**

**IZAPIDE TELEMATIKOA**
BAIMEN-AGIRI TELEMATIKOA IPINTZEKO GUNEA

**TRAMITACIÓN TELEMÁTICA**
ESPACIO RESERVADO PARA COLOCAR EL DOCUMENTO DE AUTORIZACIÓN TELEMÁTICO